URREZKO LUMA 2012
MENDEBALDE KULTURA ALKARTEA
2012-06-04

Aurten, Urrezko Luma ematen diote Mendebalde Kultura Alkarteari Bilboko Liburu Azokak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak. Eskerrik asko mila bider.

"Urruna urre, hurrekoa lurre" idatzi zuen Frai Bartolome idazle apartak. Oraingoan, hurrekoa ere urre bihurtu zaigu eta bihurtu ere urregorri.

Mendebalde Kultura Alkartea deritzan euskaltzaleen taldea 1993ko martxoaren 12an abiatu zen; Halanda ze, 20 urtera doa. Mendebalde Kultura Alkarteak Bilbon dauka egoitza, Euskararen Etxean.

Zergatik Mendebaldeko begirada, bizkaierarena? J.I. Uhaldek The basque dialect of Lekeitio ikerlanean dio: *To conclude, Lekeitio Basque does not appear to be in imminent danger of extintion. It certainly does not seem that it will be replaced in its functions by Standard Basque in the near future.*

Aita Villasantek berak hauxe dakarkigu: *Idazmota eta jenero batzuetarako orain ere, eta agian luzarorako, egokiagoak gerta daitezke euskalkiak euskara batua bera baino, mendez mende bildutako kutsu eta lurrun hori dela kausa edo toki jakin bateko hizkeraren hurbiltasuna dela kausa.*

Hori gogoan, taldearen helburuak bitarikoak dira; alde batetik, Euskal Herriko mendebaldeko euskarak, bizkaiera izenaz ezagutzen denak, euskara batuari eskain diezaiokeen ondarea ikertzea eta indartzea, horrela euskara bera ikertu eta indartuz; bestetik, mendebaldeko euskararen corpusa eta estatusa jagotea, jorratzea eta bultzatzea.

Mendebalde Kultura Alkartean kide bilduak eta kide garanduak ditugu, hau da, bete-betean beharrean dihardutenak eta noizbehinkako lankidetza eskaintzen dutenak.

Artikulu labur honetan, ezinbestean, izenei baino izanari lotu beharko natzaio. Asko dira Mendebalden nahiz Mendebalderen inguruan lanbidez irakasle, jokabidez euskaldun-euskaltzale: unibertsitatekoak, institutuetakoak, eskola-ikastoletakoak, baita itzultzaile eta teknikariak ere.

Mendebalde Kultura Alkartea azken hamarkada biotan eztabaidarako foro izan da, auzolanerako gune eta bizkaieraren lurraldean bizi garen euskaldunon topaleku.

Emaitzak erakusgarri bezain pozgarriak dira: 16 Jardunaldi; 20 Euskalingua –CDetan eta Internetez; Hiru bilduma: Jardunaldietako bilduma orlegia; ATEKA AZTERGAIAK bilduma eta IZARO BILDUMA. Jardunaldietako 121 hizlari; Euskalinguako 100 txostengile; mila entzuletik gora.

Adierazgarriak dira maiatzeko Jardunaldietan urtez urte 1997tik 2012ra jorratu diren gaiak –bilduma orlegian argitaratuak–:

1.- Mendebaldeko euskara XX. mende goienean.(1997).
2.- Mendebaldeko euskararen ekarria.(1998).
3.- Euskalkien lekua literaturan (1999).
4.- Mendebaldeko berbetearen formalizazinoa (2000).
5.- Euskalkia eta Hezkuntza (2001).
6.- Euskalkia eta administrazinoa (2002).
7.- Ahozkotasuna aztergai (2003).
8.- Egokitasuna hizkuntzaren erabileran (2004).
9.- Euskera zientifiko-teknikoa: Normalizazinotik homologazinora (2005).
10.- Mendebaldetik 10 urtegarrenean (2006).
11.- Mendebaldeak badu Ekialdea (2007).
12.- Atzorik etzira (2008).

13.- Transmisinoa eta erabilera (2009).

14.- Bilbon mundua ikusi (2010).

15.- Berbak hariz josten (2011).

16.- Hizkuntzaz jabetzen (0-6) (2012).

Euskalinguetan eta Jardunaldietako 16 liburukietan euskarazko artikulu, txosten eta ikerlanez gainera, badira 19 ikerketa-artikulu ingelesez eta 7 gaztelaniaz.

Mendebalde Kultura Alkartearen eragin soziala agerikoa izan da atzenengo 20 urteotan:

–Durangoko azokan agertu gara Arratiako GEURE BERBATEGIE gaz batera.

–Bizkaia Irratian goizero-goizero kontatu izan ditugu Mendebaldek argitaraturiko anekdota liburuetako pasadizoak.

–Hizkuntza Eskolan testu liburu dira Goi-maila I eta II, Eneko Barrutiak-eta Mendebalden argitaratuak.

–Maiatzeko Jardunaldietan parte-hartzaile bakoitzari eskura ematen zaio txostenak eta artikuluak jasotzen dituen liburua.

–Herrietako euskara eta kultura ere jaso eta ikertu dira: Bakio, Arrieta, Arrigorriaga...

–Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleei ikastaroak eman zaizkie...

–Mikel Zarateren eta Zamarriparen liburuak berragitaratu ditugu...

Gainera, bizkaieraren lurretako ikerketa entziklopedikoak ere kaleratu ahal izan ditugu: Iñaki Gaminderen *Bizkaian zehar. Euskararen ikuspegi orokorra.*

Beti be, kideen euskaltzaletasuna ardatz dela eta erakundeak lagun jokatu dugu Mendebalde Kultura Alkartean. Hori horrela, bene-benetan eskerrak ematen dizkiegu diru nahiz baliabide laguntza eskaini diguten Bizkaiko Foru Aldundiari, Bilboko Udalari, Eusko Jaurlaritzari, BBKri eta Euskaltzaindiari eta Bizkaiko hainbeste udali.

Xabier Amurizak, Mendebaldeko kideak idatzi zuen 1997an: *Bertsogintza eta batez be plazako bertsolaritza ahozko hizkuntzaren barru-barrukoa izanik, gure euskalkia gitxietsita egon da, gaur, normal kantatzen dabe bizkaieraz.*

Orduan legez gaur ere, Mendebalde Kultura Alkarteko kideok ezagutzen dugu euskararen gaixotasuna zein den eta sendabidea aurkitzen ahalegindu gara. Euskararen ahuleziak hizkuntza gutxitu guztienak dira, berbeta nagusiren baten menpean bizi direnenak. Gure gazteak eta ez hain gazteak euskara ondo jakinda erdaraz zelan bizi litezkeen ulertzeko, batez ere, erdarak eta euskarak gizartean duten ospe desberdinera jo behar dugu arrazoi bila, erabiltzen den euskararen kalitatera –corpusera– baino gehiago. Badakigu, ondorioz, erdara nagusitzen den giroetan hizkuntza pobrezia agerikoa dela. Ostera, hiztuna erkidego trinkoko eta osasuntsuko partaide denean, berbeta jatorra erabiltzea dela berezkoa.

"Inguru sozialik gabe, geure banakotasun isolatuan, oso antzuak gara denok ere". (Joseba Intxaustik. Jardunaldietako 10. alean). Hara gure talde lanerako jokabidea, hainbeste urtez praktikara eroana, gaur egun ere behar-beharrezkoa hiritar askotariko herri txiki honetan.

Eskerrik asko, mila esker Urrezko Luma eman diguzuelako, batez ere, erakundeekin batera, Asier Muniategi ohorezko ikasle-ohi eta eragile ezin dinamikoagoari.

Juan Luis Goikoetxea Arrieta
Mendebalde.com